

XABIER SILVEIRA

Maradona

barrilete kosmikoa



Zuen seme-alabek Maradona nor zen galdetzen dizuetenean, zer erantzun jakin dezazuen.

Diegok bezala, ongien egiten dakizue-na armatza hartuz bizitza borrokan igaro duzuen guztioi, bihotz-bihotzez.



Jokatu, irabazi, txiza egin eta galdu zuen. Analsiak egin eta efedrina aurkitu zioten. Maradonak, hortaz, oker amaitu zuen '94ko bere Mundiala. Efedrina ez da droga bizigarritzat hartzen, ez Amerikako Estatu Batuetan ezta he-

rrialde askotako kirol profesionalen ere. Nolanahi ere, debekaturik dago substantzia hori nazioarteko lehiatan erabiltzea. Harridura eta eskandalua nonahi. Gaitzespen moralaren trumoiek gor utzi zuten mundu osoa. Baina, nola edo hala, idolo eroriaren aldeko zenbait boz entzun ziren.



Ez soilik haren bihotzeko Argentina mindu eta zurtuan, urruneko zokoetan ere entzun ziren *Pelusaren* aldeko bozak. Bangladeshen, esaterako, jende andana ibili zen kaleetan barrena FIFA gaitzetsiz eta jokalaria kanporatua bueltatzeko eskatuz. Azken finean, Maradona epaitzea eta kondenatzea erraza zen. Aitzitik, ez zen ahanzten erraza Maradona futbol jokalaririk onena urtetan izan zela. Izar argentinarrak, halaber, agintekoez isilean gordetzen zituzten hainbat kontu ozen salatzekeo delitua egin zuen. Horrez gain, beste bidegabekeria bat ere gauzatu zuen: ezkerreko hankarekin jolastu. Pequeño Larousse Ilustrado hiztegiaren arabera, ezkerrekin jolastea «kontrako erara jolastearen» parekoa da.

Diego Armando Maradonak ez zuen sekula bizigarririk erabili bere gorputza biderkatzeko partiduak jokatu aurretik. Egia da kokainan sarturik ibili zela, baina festa tristeetan dopatu ohi zen, ahazteko ala ahaztua izateko, loriak estutzen zuenean eta bizitza urratzen zion ospea gabe bizi ezin zenean. Kokaina hartzeagatik ez, kokaina hartuta ere jokatzen zuen beste inork baino hobea.

Eduardo Galeano

1 Diego

Que se quede, que se quede...! Argentinos Juniors-en kantxan Independiente taldeak jokatzen zuen arratsalde hartan eta harmailak lepo beteta zeuden. Atsedenaldea bukatu eta bi taldeetako jokalaria eta epaileak zelairatzen ari zirenean hasi zen jendetza oihuka: «*Que se quede, que se quede...!*». Atsedena irauten dituen hamabost minutuetan mutil koxkor bat ibilia zen zelaian baloi batekin malabarismoak egiten. Hainbeste gustatu zitzaion ikusleei, nahiago zutela Cebollitas taldearen txandala soinean zeraman pilota-jasotzaile txiki haren magia gozaten jarraitu jokalaria profesionalak berriro berdegunean ikustea baino. Diego Armando Maradona, bere ile ugariatik *Pelusa* ezizenez ezaguna, albiste izan zen lehen aldie-tako batean halaxe idazten zuen *Clarín* Argentinako egunkariak: «*Había un pibe con porte y*



clase de crack». Kazetariak, erratuta, *Caradona* idatzi zuen Maradona idatzi ordez. Hamabi urte besterik ez zuen.

Lau urte atzera iritsi zen bere sendia Villa Fiorito-ra, Lanus-etik, Buenos Airesko auzo txiroenetako batetik. Ez pentsa Villa Fioritorako aldaketak asko hobetu zuenik egoera, alde ekonomikotik ez behintzat. Diegok berak kontatzen duenez, euria egiten zuenean gehiago bus-titzen ziren etxe barruan kanpoan baino. Zerua ateri, nolana ere, sukaldean aritzeko zein etxea garbitzeko ura behar zutenean auzoan zegoen putzura joan behar zuten ur bila.

Diego eta zazpi anai-arreba (*el Lalo, el Turco, Ana, Kity, Lili, Mary eta Caly*), *Don Diego* aita

eta *La Tota* ama; denak bizi ziren bi logela eta jantokia besterik ez zeuzkan etxean. Hamar lagun! Zoriontsu izateko ordea ez da dirua izaten lehen baldintza eta, noski, Diego txikiak baloi zulatu bat aski zuen bere lehengusu Betorekin edo auzoko beste edozein umerekin kalera jo eta jolasean ederki ibiltzeko. Ama Totak baldintza bakarra jartzen zion: iluntzetik aurrera jolastea. Baina ez zuen ia inoiz betetzen eta egun osoa ematen zuen kalean, lagunekin, baloiaren atzetik korrika, eskolara joan behar ez zuenean bai behintzat.

Denbora, futbola eta den-dena partekatzen zuten lagun artean Villa Fioritoko umeek. Jatekoa zegoenean jaten zuten, ez zegoenean ez. Baina batek jatekoa zuenean denek jaten zuten. Maradonak bere haurtzaroaz hitz egiten duenean, auzoaz hitz egiten duenean, borroka hitza erabiltzen du beti, eta bere bizi osoa hitz horrekin laburbiltzen du: Borroka.

Cebollitas

Borroka egiteko mila modu daude eta *Pelusak* futbola aukeratu zuen bere bizitzarako borroka tresna bezala. Zelaian egiten zuen berea, golak emanaz eta eginez, bere etxe eta auzoko



txirotasuna harrotasun bilakatuz. Harrotasun, ez harrokeri.

Cebollitas taldean hasi zen jokatzeko, Argentinos Juniorsen azpi taldeetako batean. Ehun eta hogeita hamasei partidua galdu gabe egon ondoren bera baino hiru urte zaharragoak zirenen mutilekin jokatzeko jarri zuten, horretarako jokalarien fitxak trukatu behar bazituzten ere. Hala ere, *Pelusa* nabarmentzen zen beste guztien artean. Gero eta ezagunagoa egin zen, aurkarien entrenatzaileentzat gehienbat. Futboleko bere modua aitzin, 1976. urteko urriaren 20an, hamazazpi urte betetzeko hamar egun falta zitzaizkiola, lehen mailako taldean jokatu zuen.

Argentinos Juniors

Orduantxe hasi zen historian izan den munduko futbol jokalaririk handienaren ibilera profesionala, bere borrokaren benetako ordua.

Oso azkar gertatu zen dena Maradonaren bizitzan, hala, lehen mailan debuta egin eta hilabete gutxitara Argentinako selekzio nagusira deitu zuen *Flaco* Menotti hautatzaileak. Horrela hasi zen poliki-poliki diru pixka bat irabazten. Argentinos Juniors taldeak etxe berria erosi zion, eta bertara joan ziren bizitzera Maradona bera nahiz haren familia osoa. Patuak sorpresa piloa ematen ditu eta, hara non, etxe hartan



Claudia zuen bizilagun, Diegitok bere bizitza partekatzeko gerora aukeratuko zuen pertsona. Ezkondu eta bi alaba izan zituzten: Dalma Nerea eta Gianinna Dinorab. Baina hori aurrerago gertatuko zen, *Pelusak* aurretik gauza piloa baitzeukan egiteko.

1976. urteko martxoan militar faxistek estatu-kolpea eman eta boterea hartu zutenetik Jorge Rafael Videla izan zen presidente. Azken hori, 1986. urtean boteretik kendu, epaitu eta bizitza osorako kartzelan sartu zuten. Urte latzak bizi behar izan zituen Argentina osoak. Bahiketak, hilketak, torturak eta militarren erregimenekek beldurra sortzeko erabili ohi dituzten mila motatako barrabaskeriak pairatu zituzten herri-tarrek. Baina munduan agintzen dutenek ederki ulertzen dute elkar eta FIFAk 1978ko mundiala Argentinan egiteko erabakiarekin aurrera jarraitu zuen.

Militarrek erregimenaren aurpegia zuritzeko erabili nahi zuten futbol txapelketa. Oihartzun mediatiko itzela izango zuela aurreikusirik, ezkerreko mugimenduek diktaduraren alderik ilunenak salatzeke manifestazio eta protesta ugari iragarri zituzten. Horiek geldiarazteko aitzakia-ekin, milaka eta milaka atxilotu izan ziren eta ez zen giro izan kaleetan Mundialak iraun zuen egunetan. Baina bazen beste afera bat ere argen-

tinarrak aho bete hortz utzi eta, aldi berean, haserre bizian zeuzkana: Menottik ez zuen Mundialerako zerrendetan Diego sartu. Maradonak ez zuen Argentina'78 txapelketan parte hartuko. Baina jakina, minik gehien Diegori berari eman zion erabaki hark eta inoiz ez dio barkatu futbol prestatzaile handienetakoa den *Flaco* Menottiri bere herrikideen aurrean bere magia eta indarra erakusteko aukera ukatzea.

Mendekua hitzeman zuen eta mendekua Japongo mundial jubenilean etorriko zen, urtebete geroago. Japonen jokatzeko sailkapen torneoa Uruguain izan zen, Montevideon, eta bertan Maradonak amets bat bete zuen: familia guztia itsasoa ikustera eramatea. Eta han zirela, hondartzan, aitari lanik gehiago egin ez zezan eskatu zion. Dena bere kontu.

Japongoa iritsi zenerako bere aurpegia publizitate afixa dezentetan azaltzen zen, Puma, Agfa... Baina mundial hura irabazi eta gero ez zen aski bere aurpegia alokatzearekin eta Europako futbol talde boteretsuak haren eskubideak nola edo hala erosten saiatu ziren. Argentinos Juniors talde apalak ez zuen bertan jokalaria eusteko behar adina diru, ezta beste talde handiagoek ere (River Plate edo Boca Juniorsek, esaterako). Bartzorde Militarrak, ordea, Diego Armando Maradonak Argentinan jokatu zuela erabaki zuen



eta AFari (futbolari argentinarren elkarteari) eman behar zion diruaren zati bat horretarako erabili nahi zuen. Barcelona taldeak dirutza eskaini zuen baina joan ez zedin mila zalaparta, zurrumurru, gezur eta trikimailu erabili zituzten *milicoek*, militarrek, Diego River Platera bidali nahi baitzuten; baina bera ez zegoen prest. Azkenean, lau milioi dolar eta sei jokalariren truke, *Pelusa* txiki-handia Argentinosen utzi eta Boca Juniors taldean fitxatu zuen, bai *Pelusaren* eta bai Bocaren zorionerako.

Boca Juniors

Beti izan du maitea Diegok Boca Juniors. Baina Argentinosen Juniorseko jokalaria zela Bocaren aurka jokatu beharreko partiduen aurreko egunetan, *Loco* Gatti atezain ospetsuak «niri ipotx potolo batek ez dit golik egingo» adierazi zuen komunikabideetan. *Pelusak* lau gol eginez erantzun zion. Agian horregatik, ez zen erraza izan bere hasiera Boca Juniors taldean. Berandu gabe hasi zen, baina, gaur egun ere Maradona eta Boca elkartzen dituen maitasun banaezina.

Bomboneran, Boca auzoko futbol zelaian, dozenaka arratsalde magiko oparitu zizkien zaleei. Haien «*Maradoooo, Maradoooo, Maradoooo...*» abesten zioten edo... «*lo quería el Barcelona/lo*

quería el River Plei/Maradona es de Boca porque gallina no es».

Baina ez zuen bertan denbora gehiegi eman, egia esan. Bera Bocara iritsi eta denbora gutxira egoera ekonomikoak okerrera egin zuen Argentinan. Horren erakusle itzel ondoko datu hau: Maradonak Bomboneran jokatu zuen lehen partidari milioi bat dolar bildu ziren sarrerak saldu-ta. Hurrengoan mila dolar eskas, Pesoak, bertako txanponak, balioa erabat galdu baitzuen dollarrarekiko.

Eta bai, Europarako bidea hartu zuen. Bertan, España'82 mundiala jokatu eta, bidenabar, Barcelonarekin negoziaketetan hasi zen. Mundiala ez zitzaion ongiegi joan eta Brasildarrek etxeratu zituzten Argentinarrak. Bestetik, bizitza guztian damutuko zaion kontratua sinatu zuen F.C. Barcelonarekin. Beraz, Herrialde Katalanetan bukatu zuen.

